

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2015IPLE0009
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	OHIKO OSOKO BILKURA

2015-09-16ko EZOHICO BATZORDE KUDEATZAILEAREN BILKURA

Albizturren, 2015eko irailaren 16an, eguerdiko 12:00tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko gestoraren bilkura deitua zegoen, Markel Olano Diputatu Nagusiak deiturik, behin Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu kontseiluak 2015eko irailaren 15ean Albizturko kudeaketa batzordeko kide izandapena burutu ondoren.

BERTARATUAK:

- M^a del Carmen Dorronsoro Uranga
- Isidro Condado Elola
- Ainhoa Galarza Irigoyen
- Carlos Ugartemendia Leunda
- M^a Isabel Machinandiarena Arrospide
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Jose Javier Maiza Aizcorbe

Udaleko idazkari kontu-hartzailea, Lierni Muñoa Salaverria bertaratu da.

AZTERGAIK:

1. Adineko mahaia eratzea.
2. Kudeaketa batzorde eraketa.
3. Batzorde kudeatzaileko lehendakari aukeratzea.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK


1.- Adineko mahaia eratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dioenari jarraituz, bokalek egiaztatutunak Idazkaritza Nagusian jaso ondoren, bertaratutako bokaletatik zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi bokal horiek adineko mahaia osa dezaten, udal idazkariarekin batera.

Erabakia

Adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Carlos Ugartemendia Leunda



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Zinegotzirik gazteena: Aitziber Orbegozo Arrospide

Idazkaria: Lierni Muñoa Salaverria

2.- Batzorde Kudeatzailea eratzea

Adineko mahaiak bokalen egiaztagutunak aztertu ditu, Foru Aldundiaren bokal izendapenekin batera, bokal egiaztagutunak eta Foru Aldundiko Izendapenak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik, zinegotziek konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute.

Erabakia

Bokalen gehiengo osoa bertan dagoela, adineko mahaiak Batzorde Kudeatzailea eratutzat jo du. Hona hemen zinegotzien zerrenda:

- M^a del Carmen Dorronsoro Uranga
- Isidro Condado Elola
- Ainhoa Galarza Irigoyen
- Carlos Ugartemendia Leunda
- M^a Isabel Machinandiarena Arrospide
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Jose Javier Maiza Aizcorbe

Jarraian, idazkariak hiru agiri hauek aurkeztu dizkio udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten: a) kutzako kontaketaren agiria; b) Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak;

3.- Batzordeko lehendakaria aukeratzea

Kontuan harturik Foru Aldundiaren erabakia non jasotzen den gestorako edozein kidek izan ahal izango duela bere lehendakari, Carlos Ugartemendia Leunda azaldu da horren aldeko.

Bozketa burutu da eta aho batez Carlos Ugartemendia Leundak lortu ditu aldeko 7 botuak.

Erabakia

Bozketak erakusten duenez, Carlos Ugartemendia Leunda da Batzorde Kudeatzailearen Lehendakaria.

Ondoren, Carlos Ugartemendia Leunda onartu egin du Batzorde Kudeatzaile Lehendakaria izatea. Horrela, bada, udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

guztiek. Horrenbestez, Carlos Ugartemendia Leundak hartu egin du Batzorde Kudeatzaileko Lehendakari kargua.

Bilkura amaituta, agiri hau egin dut lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatu eta erabakitakoa jasotzeko.

Albizturren, 2015eko irailaren 24ean

Lierni Muñoa Salaverria
Idazkari kontu-hartzailea

ANEXO RESUMEN EN CASTELLANO

1. CONSTITUCIÓN DE LA MESA DE EDAD. Se constituyó regularmente con Carlos Ugartemendia y Aitziber Orbegozo y la secretaria municipal.
2. Se presentaron todos los vocales nombrados por la Diputación Foral y todos ellos tomaron cargo quedándose la Gestora creada.
3. De entre los vocales Carlos Ugartemendia manifestó su deseo de ser presidente de la gestora y por unanimidad fue elegido, jurando su cargo en cumplimiento de las leyes y por tanto tomando posesión del cargo de Presidente de la Gestora del Ayuntamiento de Albiztur